


5. atala

LEHENENGO AIPAMENA: IHURRETA

Antzinako historian bidaiari ibiliak ziren Jone eta Aritz, mitoak, leiendak eta historia nahasten ziren garai lausoetan. Bazuten beraz lurretari buruzko datu zehatz eta egiazkoagoak aurkitzeko gogoak. Ibaizabal behean utzita saldain errekarari jarraitu zioten neba-arrebek baina handik laster eskumatara hartu zuten goranzko bidea.

- *Iurreta aipatzen den eta guk ezagutzen dugun dokumentu zaharrena 1072. Urtekoa da Aritz.*
- *Orain dela ia mila urte! – Esan zuen mutilak harrিতuta eta pozik!*
- *Pixka bat gutxixeago baina ia-ia – jarraitu zuen Jonek irriz.*
- *Eta zer gertatu zen ba urte horretan?*
- *Nafarroako errege Antso IV.ak eta bere emazte Plazentzia Normandiakoak hemen, Amatzan, dagoen San Mar-*

**ARIKETA:**

- *Marrastuko al zenuke leiho hau Aritzek bezala?*

tin ermita eman zioten Errioxako San Milan de la Cogolla monastegiari.

- *Uau! Nafarroako errege erreginak! Iurreta aipatu zuten hor? – Aritz Amatzako ermita inguratzen hasi zen.*
- *“Ihurretako San Martin monastegia” bezala ezagutzen zen garai hartan eta garrantzi handikoa zen inguruan.*

Neba-arrebek baselizaren atzeko aldera gerturatu ziren eta hango bi leihoi begira-begira gelditu ziren biak.

- *Begira zer leiho bitxiak Jone!*
- *Ezkerreko hau gezileiho bat da eta beste hori leiho monolitiko zahar-zahar bat. Ermita bera baino zaharragoak izan litezke biak.*
- *Oso forma errazak ditu honek Jone! Marrastu egingo dut!*

